

Administrari agurgarria,

Gutun honen bidez, Amasa-Villabonako udaleko Ingurumen sailak hiri hondakinen inguruan abiatu duen dinamikaren eta sentsibilizazio kanpainaren berri eman nahi dizugu.

2015ean adostasun garrantzitsua lortu zen gaur egungo edukiontzien bilketa sistema martxan jartzeko. Horren ondorioz, egoera asko hobetu zen eta gaikako bilketa portzentaje oso altuak lortu ziren. Guztion ahaleginari esker, Amasa-Villabona Gipuzkoako herrien artean goiko postuetan kokatu zen birziklatze tasa oso altuekin.

Hala ere, azken aldian egoera okertu egin da eta datuetan beherakada nabarmena izan dugu. Zentzu honetan udalak hainbat arazo kezkarri identifikatu ditu hondakinen bilketari dagokionez:

- Gero eta zabor gehiago botatzen da lurrera, edukiontzitik kanpo.
- Organikoan gaizki sailkatutako hondakin gero eta gehiago jasotzen dira eta askotan ez dira poltsa konpostagarriak erabiltzen.
- Traste zaharrak edozein egunetan uzten dira kalean, edozein lekutan.
- Landa inguruko hainbat edukiontzi gune, zabortegei inprobisatu bilakatu dira.
- Gaikako bilketaren portzentajea beherantz doa, 2020ko urtarriletik %6 egin du behera.

Egoera honetan, herritar gehienek ingurumenarekiko eta zaborren gaikako bilketa-erakundeetara jarrera positiboa duzuela jakinda, udalak informazio kanpaina bat abiatzea erabaki du, azken hilabeteetako joera aldatu eta hondakinen bilketa hobetzeko helburuarekin.

Horretarako, zure laguntza oso baliagarria izan daitekeela uste dugu eta horregatik honako eskaera egiten dizugu:

- ✓ **Gutun honetan helarazi dizugun kartela, zure portaleko leku ikusgarri batean jartzea.** Horrela bizilagun guztiek ikusi ahal izango dute eta gaizki egindakoak zuzentzeko aukera izango dute.
- ✓ **Hurrengo bizilagunen bileran gaia aipatzea.** Gutun honen berri eman eta bizilagunei mesedez hondakinak behar bezala sailkatu eta ateratzeko eskatu.

Azkenik, jakinarazten dizugu, hemendik aurrera Udaltzaingoak jarraipen berezia egingo duela inork zabor poltsak lurrian botata utzi ez ditzan. Gogorarazten dizugu poltsa edukiontzietatik kanpo lurrian botatzeak, 90 eta 450€ bitarteko isuna dakarrela.

Eskaera hau beteko duzulakoan,

Agur bero bat.

Estimado administrador/a

Mediante esta carta queremos informarle de la dinámica y campaña de sensibilización que ha emprendido el departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Amasa-Villabona en torno a la recogida de residuos.

En 2015 se logró un consenso importante para la puesta en marcha del actual sistema de recogida en contenedores. Como consecuencia, la situación mejoró mucho y se obtuvieron porcentajes de recogida selectiva muy altos. Gracias al esfuerzo de todos y todas, en Amasa-Villabona conseguimos situarnos a la cabeza de toda Gipuzkoa en los porcentajes y tasas de reciclaje.

Sin embargo, en los últimos meses la situación ha empeorado y hemos experimentado un descenso significativo en los datos. En este sentido el ayuntamiento ha identificado una serie de problemas preocupantes en cuanto a la recogida de residuos:

- Cada vez se dejan más bolsas de basura en el suelo, fuera del contenedor.
- En el contenedor del orgánico se vierten cada vez más residuos mal clasificados y en muchos casos no se utilizan las bolsas compostables.
- Los trastos viejos y residuos voluminosos se dejan en la calle cualquier día y en cualquier lugar, sin respetar los lugares y horarios establecidos.
- Varias zonas de contenedores de áreas rurales, se han convertido en vertederos improvisados.
- El porcentaje de recogida selectiva ha sufrido un descenso considerable (un 6% desde enero de 2020).

Ante esta situación, conscientes de que la mayoría de la población muestra una actitud positiva hacia el medio ambiente y la recogida selectiva, el ayuntamiento ha decidido emprender una campaña informativa con el objetivo de cambiar la tendencia de los últimos meses y mejorar la recogida de residuos.

Para ello, consideramos que su ayuda puede resultar muy útil y por ello le realizamos la siguiente solicitud:

- ✓ **Colocar el cartel que le hemos hecho llegar en esta carta en un lugar visible del portal.** De esta manera todos los vecinos y vecinas podrán verlo y consultarlo. Pudiendo así corregir las actuaciones que no son correctas.
- ✓ **Hacer alusión a este tema en la próxima reunión de vecinos/as.** Comunicar el contenido de esta carta y rogar a los vecinos y vecinas que realicen una correcta clasificación y retirada de los residuos.

Por último, le informamos que la Policía Municipal realizará un seguimiento especial para evitar que se sigan dejando las bolsas de basura tiradas en el suelo. Le recordamos que depositar la bolsa fuera de los contenedores puede conllevar una multa de entre 90 y 450€.

Esperando que cumpla con la solicitud que le hemos hecho llegar,

Un cordial saludo.